



INGURUMENA - AGENDA 21

Hondarribian, 2010eko apirilaren 7an

Jaun/anderea:

Gogoratuko duzun moduan, urtarrilaren 12an egindako Agenda 21en Herritarren Foroan aurrerantzean autobus zerbitzuaren eskaintzan gertatuko diren aldaketa nahiz zerbitzuei buruzko azalpenak eman zituen Hondarribiko Udalak. Era berean, bileraren bigarren zatian, bertaratu ziren herritarrek beraien ekarpenak egiteko aukera izan zuten, garraio publikoaren inguruko berrikuntzen proposamena aberastuz.

Orduz geroztik, herritarrek Agenda 21en Herritarren Foroan bidez edo auzokako bileren bidez proposamen gehigarriak egiteko aukera izan zuten eta baita horiek udal ordezkariekin eztabaidatzeko ere. Ondoren, Udalak Gipuzkoako Foru Aldundira bidali zuen autobus zerbitzuaren inguruko hobekuntzen inguruko idatzia. Hori dela eta, une honetan, herritarrei urtarrileko Herritarren Foroa antolatu zenetik orain artean autobus zerbitzuaren eskaintzaren gaian eman diren pausoen berri eman nahi diegu.

Gai honekin batera, bileraren bigarren helburua Hondarribiko Udalak onartu nahi duen Telekomunikazio sareetako instalazio irratielektrikoak arautzen dituen Ordenantzaren edukia aurkeztea izango da, gai honetan bertaratutakoek beraien proposamenak egiteko aukera izan dezaten.

Hori dela eta, **gutun honen bidez, apirilaren 15ean (osteguna), 19:00etan, Hondarribiko Udaletxeko Pleno Aretoan egingo den Herritarren Foroaren bilerarako deialdia egiten dizut.**

Bileraren gai zerrenda honakoa izango da:

1. Hondarribiko autobus zerbitzuaren inguruko berrikuntzak
2. Uhin elektromagnetikoen gaia arautzen duen ordenantzaren aurkezpena
3. Norberak lekarkeena

Bileran bertaratuko bazara, mesedez, jakinarazi iezaiozu ingurumena eta Agenda 21en teknikariari, 943-111242 zenbakira deituz edo [ingurumena@hondarribia.org](mailto:ingurumena@hondarribia.org) helbidera posta elektronikoko bat bidaliz.

Herritarren Foroko hurrengo bileran parte hartuko duzulakoan, jaso agur bat,

Ion Elizalde Caballero  
Ingurumena eta Agenda 21 zinegotzia



En Hondarribia, a 7 de abril de 2010

Estimado sr./sra.:

Tal como recordarás, el 12 de enero el Ayuntamiento de Hondarribia organizó una reunión del Foro Ciudadano de la Agenda 21 para dar a conocer a las asociaciones, entidades y ciudadanía a título particular las novedades previstas en la oferta de transporte público de Hondarribia. Así mismo, las personas que asistieron a la reunión tuvieron la ocasión de realizar aportaciones para poder mejorar la propuesta realizada por la Diputación Foral de Gipuzkoa a los responsables municipales.

Desde entonces, sea a través de las propuestas recibidas a través del Foro Ciudadano de Agenda 21 o mediante las reuniones organizadas en distintos barrios del municipio, el Ayuntamiento de Hondarribia ha tenido la oportunidad de recoger aportaciones adicionales de cara a enriquecer el documento de alegaciones a presentar ante la Diputación Foral de Gipuzkoa. Por ello, uno de los objetivos de la próxima reunión del Foro Ciudadano es dar a conocer a la ciudadanía los pasos que se han dado desde enero por parte del Ayuntamiento para mejorar la oferta de transporte público de Hondarribia.

Al mismo tiempo, en la segunda parte de la reunión, el Ayuntamiento presentará el contenido de la ordenanza reguladora de la instalación y funcionamiento de equipos y elementos radioeléctricos pertenecientes a las redes de telecomunicaciones, y las personas que participen en la reunión podrán realizar las aportaciones que deseen.

Por ello, **le convoco a la reunión que tendrá lugar el 15 de abril (jueves), a las 19:00, en el salón de plenos del Ayuntamiento de Hondarribia.**

Este será el orden del día de la reunión:

1. Novedades en torno a las líneas de autobús de Hondarribia
2. Ordenanza reguladora de la instalación y funcionamiento de equipos y elementos radioeléctricos pertenecientes a las redes de telecomunicaciones
3. Ruegos y preguntas

Le agradeceríamos que por favor confirme su asistencia poniéndose en contacto con la técnico de medio ambiente y Agenda 21, a través del número de teléfono 943-111242 o escribiendo un correo a [ingurumena@hondarribia.org](mailto:ingurumena@hondarribia.org).

Esperando poder contar con su presencia en la próxima reunión del Foro Ciudadano, le saluda atentamente,

Ion Elizalde Caballero  
Concejal Delegado de Medio Ambiente y Agenda 21